

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko uztailaren 5a. VIII. urtea. 2.255. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



SARAGOZUEZ-AMERUEGARTIEMENDIA



→ **Atsedena dia Alegiako karmenak arte.** San Pedro jaiak ospatzen aritu dira asteburuan zehar Asteasun, Leaburun eta Urkizun. Asteasun, besteak beste, herriko taldeen arteko lehia izan zuten herenegun, eta Leaburun, aldiz, Euskal Herriko Toka Txapelketa jokatu zuten 20 lagunek. Amaroztz auzoan ere jaiak ospatu dituzte azken egunetan. Hurrengo jaiak Alegiako karmenak izango dira, uztailaren erdialdean. ◊ 4-5

Eskualdeko triatloilari guztiek bukatu dute Austriako Iron Man-a

Itsaso Leundak 38. egin du, baina ez du Hawaiiirako txartela lortu; Mahala taldekoek aurreikuspen baikorrenak bete dituzte ◊ 6

Tolosaldeko eta Goierriko turismoa bultzatzeko gida atera dute

Tolosaldea Tourrek eta Goiturrek kaleratu dute eskuliburua; turisten behar berrietara egokitzen den lana dela diote arduradunek ◊ 3

Arteaga, Kanflanka, Lizaso eta Alkorta segalariak izango dira finalean

Tolosaldeko eta Leitzaldekoak fin ibili dira eta Euskadiko Segalari Txapelketako azken saioan izango dira, uztailaren 10ean, Oiartzunen ◊ 7



3008

GURE INGENIARIEN NEURONA GUZTIAK DITUZU ESKURA HEMEN



5008

PROBATUZ GERO, HARTUKO DUZU

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-3008 P-5008



Errausketa zero trua bermia martxan!
Errausketa labe propizterekin.



Irudia ◊ **Leitza**



SEXU ASKATASUNAZ HIZKETAN

Sexu Askapenerako Leitzako Lagunak eta Bilgune Feministak antolatutako mahai inguruan 40 bat lagun bildu ziren. Lumatza, Nafarroako soropil feministetatik Josune Ortiz eta Ana Jaka; Bilgune Feministatik Miren Aranguren eta EHGAMetrik Imanol Alvarez izan ziren. Sexu askatasunaren al-

deko borrokan izandako ibilbidea, borrokak, lortpenak, lesbiana, gay, trans izateak dituen mugak, aurreiritziak... izan zituzten mintzagai. Antolatzaileen ustez «oso polita» izan zen mahai ingurua eta «jende mordoxka» elkartu zen. Ondoren, aitari ederra egin zuten Atekabeltz gaztetxean. HITZA

→ **Laburrak**

Bihar 19:30ean ohiko osoko bilkura egingo dute

IBARRA › Bihar 19:30ean egingo dute ohiko osoko bilkura Ibarra-ko udaletxean. Bertan besteak beste honako gai ordena izango dute jorratzeko: Udalbatza bilkuren aldizkakotasuna ezartzea; Batzorde Informatibo iraunkorrak eratzea eta osatzea; Tokiko Gobernu Batzordea eratzea; Alkatea liberatzea eta ordainsari-erregimena; Herri bideetan ibilgailuen apartatzea arautzen duen udal ordenantzen 10.A puntuaren zuzenketa egitea.

Festa alternatiboen herri bazkariko txartelak salgai

ALEGIA › Aurtengo festa alternatiboetako herri bazkariko txartelak 15 eurotan jarri dituzte salgai. Ohiko lekuetan daude. Bazkaria ostiralean, hilaren 15ean izango da 14:30ean.

Izena ematea zabalik dago 3x3 saskibaloitxapelketan

ZIZURKIL › Zizurkilgo Gaztiek 3x3 saskibaloitxapelketa antolatu dute. 16 urtetik gorakoentzat izango da txapelketa, eta taldeak sexu berekoak edo mistoak izan daitezke. Izen ematea, Egarrri tabernan edo 627 28 93 92 telefono zenbakira deituz egin daiteke. Azken eguna hilaren 15a, ostirala izango da. Txapelketa berriz, irailean hasiko da.

Kartel lehiaketan parte hartzeko aukera dago

ZIZURKIL › Udalak herriko festa iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketa prestatu du. Hilaren 20a da lanak aurkezteko azken eguna. *Zizurkilgo Jaiak 2011. 7-8-9-10-11* testua agertu beharko da. Edozeinek parte hartu dezake, eta lana DIN A4 tamainan aurkeztu beharko da. Lau kolore erabili beharko dira eta teknika libre izango da. 175 euroko saria dago irabazlearentzat. Udal bulegoetan edo liburutegian aurkeztu beharko dira.

Adin txikiko hiru lagun Espainiako Entzutegi Nazionalera deitu dituzte

Jone Lozano euskal presoari elkartasuna adierazteko ekimenetan identifikatu zituen sei gazte Guardia Zibilak

kikoez, Madrileko Audientzia Nazionalako Adingabekoen Aretora joan beharko dute deklaratzera.

Martxoan, Jone Lozanoren atxiloteta salatzeo deialdia egin zuen kartela jartzeagatik Guardia Zibilak hiru leitzar identifikatu zituen. Apirilean berriz, Jone Lozanoren Euskal Herriratzeari eskatzeko argazkia jartzeagatik beste hiru.

Gazte hauetara beren familiei elkartasuna adierazi nahian, gaur 20:00etan elkarretaratzea egingo dute herriko plazan. Leitzako gazteek, Leitzako herritarrei parte hartzeko deia luzatu diete. «Guardia Zibilaren aldetik Leitzako gazteen kontrako jazarpen itsua eta kriminalizazio saiakera hau ere» salatu nahi dituzte.

E. Maiz Leitza

Leitzako adin txikiko hiru lagun gaur 09:00etan Espainiako Entzutegi Nazionalera deitu dituzte deklaratzeko. Jone Lozano euskal preso aresoarrari elkartasuna adierazteko ekimenetan Guardia Zibilak sei gazte identifikatu zituen, eta denei dilijentziak ireki dizkiete.

Terrorismoari gorazarre egitearen akusaziopean, hiru adin txi-

Irudia ◊ **Tolosa**



XIII. ANTZERKI ASTE «ARRAKASTATSUA»

Aurten ere Amarozko jaietan antzerkiak garrantzi berezia izan du. Bost egunetan antzerki emanaldiak gozatzeko, XIII. Antzerki Astea antolatu dute. May Gorostiagaren hitzetan «arrakasta handikoa» izan da aurten. «Eguraldi oso ona egin du, eta guztiak kalean egin dira, eta haurrez beteta,

gainera», azpimarratu du. Era berean, «pozgarria eta interesgarria iruditu zaigu asteburuan guraso eta haurrek batera gerturatzea emanaldietara», gaineratu du. Zirko tailerra ere arrakastatsua izan zen, eta eskerrak eman nahi izan dizkie «Amaia Pagolari eta Amaro Auzo Elkarteari». HITZA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Melanina neurketa, uztailaren 20 eta 21ean

Minbiziaren Aurkako Elkartekoak Tolosako igerilekuan izango dira azaleko melanina neurketa eskaintzen

R. C. Tolosa

Minbiziaren Aurkako Elkarteko kideak Tolosako igerilekuan izango dira hilaren 20 eta 21ean, 10:30etik 13:30era, azaleko melana

nina neurketa egiten. Horiek horrela, Elkarteko kideek informazioa emateko gunea jarriko dute igerilekuan *Ez utzi eguzkiak zure profileko argazkia alda dezan* izeneko kanpainaren barruan.

Informazio gunea jartzearen helburua eguzkitik era eraginkor batean babesteko beharrezkoak diren neurrien berri ematea da. Tolosarekin batera, Donostian, Hondarribian eta Zarautzen egongo dira.

Kultur tailerren erakusketa ireki dute

Ikasturtean zehar eginiko ikastaroetako ikasleek lanak ikusi daitezke uztailaren 9a bitarte, Aranburun

R. C. Tolosa

Hilaren 9a bitarte zeramika, pintura, argazkilaritza, patchwork, ehoziri eta orokorrean, eskulan ugari ikusi ahal izango dira Tolo-

sako Aranburu jauregian ikusgai dagoen erakusketan. Lan hauek guztiak ikasturtean zehar izandako kultur tailerretako ikasleek dira.

Erakusketa asteartetik larunbata bitarte ikusi ahal da, 17:30etik 20:30era.

Bestalde, helduen Liburute-giak udako ordutegi berria du: hilabete honetan zehar eta abuztuan 09:00etatik 17:00etara egongo da zabalik.

Irudia » Irura-Anoeta



EUSKARAREN ALDEKO LANA

Galtzaundi euskara taldeak eta Irura eta Anoetako udalek kolaborazio hitzarmena sinatu berri dute. Helburua bi udalerrietan euskararen erabilera normalizatzeko ekintzak burutzeta da. Sinaturiko hitzarmena medio Anoetako 11 enpresek eta Irurak 12k Galtzaundiko normalizazio arduradunen laguntza teknikoa izango dute, eta baita Anoeta eta Irurako udalen aholkularitza ere. HITZA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 Quad-a salgai. IAT-a pasata, extra askorekin eta oso egoera onean. Interesatuak, deitu 600 75 25 37 telefonora.

■ **Etxe adosatua.** Eguzkitsua, 4 gela, 2 bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, 2 autorentzako garajea, txokoa eta jardina. Deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Goierriko gida turistiko berria aurkeztu dute

Bisitarietara gure nortasuna, ohiturak, tradizioak, euskara, historia... ezagutzeko aukera ematen zaie

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosaldeko Tourrek eta Goiturrek Tolosaldeko eta Goierriko gida turistiko berria aurkeztu berri dute. Elkarlaneko ekimena orain hiru urte abiarazi zuten *Euskadiko Bihotza* lelopean, eta orain hitzarmenari jarraipena eman diote, besteak beste, eskuliburu honekin.

Gida honek bisitarien behar berriak erantzuten die; turistek orain, leku bat ikustera joan baino, «gauzak egiteko, eta esperientziak bizitzeko» bidaiazten dute, Niko Osinaldek, Goiturreko zuzendariak, aurkezpenean azaldu zuenez. «Kanpotar batek gure nortasuna, ohiturak, tradizioak, euskara, historia, kirola, egin daitekeena ezagutu nahi badu, ezinbestekoa du Goierri eta Tolosaldeko erortzea», gaineratu zuen. Izan ere, ezin ahaztu daitezke, bi eskualdeek Gipuzkoako 88 udalerrietatik 46 hartzen dituztela, hortik aukeratutako leloa: *Euskadiko Bihotza*.

Gida hau, hortaz, gaur egungo turismo joerei erantzuten die. «Orain jarduerak egin beharrean, esperientziak bizitzen dira»,

esan zuen zentzu honetan Tolosaldea Garatzeneko turismo arduradunak, Olatz Illarregi.

Gidaren edukia

Tolosaldeko eta Goierriko «berrengarri nagusiak» Tolosako zein Ordiziako azokak izaki, gidak larunbaterako eta asteazkeneko proposamenak biltzen ditu. Era berean, artzainak, txabolak eta gaztandegiak bisitatzeko aukerak ematen ditu, eta baita sagardotegietara, txakolin dastatze batera (Olaberrian), eta Tolosako Gorrotxategira eta bere mu-seora joateko laguntza ere.

Beste eskaintza batzuk naturarekin dute zerikusia, mendi ezagunenak eta inguruko harrespilak bisitatzeko aukera emanaz. Bide berdeen, errepide panorami-koen, kulturaren, historiaren edota merkataritzaren berri ere

ematen du gidak. Eskaintza pribatuari (zalditegiak, adibidez) ere tartetxo eskaini diote.

Gidan jatetxeen, ostatuen edota sagardotegien gida ere sartu dute, webguneetan (*tolosaldea.net*, eta *goierriturismo.com*) eguneratuko dutena. Gida euskaraz, gaztelerez, ingelesez eta frantsesez dago.

Turismo aurreikuspenak

Turismo aurreikuspenei dago-kionez, Illarregi krisi egoera honetan kontsumoak jaitsi dela nabarmendu zuen, eta beraz, kanpotarrak etortzea «lagungarria» izan daitekeela esan zuen.

«Lehenengo sei hilabeteetako datuak ikusita, iaiztik igoera egon da. Espero dugu uda ere horrela bukatzea, igoerarekin. Ea udan bisitari gehiago izaten ditugun», argitu zuen.



Olatz Illarregi eta Niko Osinaldi aurkezpenean. A. MAIZ-GOIERRIKOHITZA

→ Laburrak

Sanjoanetako balantzeak egiteko bilera, bihar

TOLOSA » Jai Batzordeak pasa berri diren San Joan jaien inguruko balantzeak egiteko bilera egongo du bihar, asteazkena, 19:00etan Kultur Etxean. Jai Batzordeak herritarrek gonbidatzen ditu jaien inguruko balantzeak egitera.

Kuadrila egunerako bilera udaletxean 19:30ean

IBARRA » Abuztuko San Bartolome jaien kuadrila eguna antolatzeko bilera egongo dute gaur, 19:30ean udaletxeko batzar aretoan. Bileran bazkarirako txartelez, arratsaldeko jokoaz, eta kuadrilek duten materiala uzteko fidantza eskatzeko proposamenaz hitz egongo dute. Gaien garrantzia ikusita gutxienez kuadrila bakoitzeko ordezkari bat joatea eskatu dute antolatzaileek.

Hernaniko erailketa salatzeko elkarretaratzea

TOLOSA » Hernanin igande goizean emakume bat erail eta bere alaba zauritu zuen gizonetako batek. Emakumeen kontrako indarkeria kasu berri hau salatzeko Emakumeen Mundu Martxa plataformak elkarretaratzea deitu du gaurko. 19:30ean bilduko dira Trianguloa plazan. Herritar orori berriratzeko deia egin die plataformak, horrela erantzun «ozen eta zabal» emateko.

TOLOSALDEKO hitza
ETA LEITZALDEKO
bertako egunkaria

902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

tolosaldea.hitza.info
leitzaldeko.hitza.info

eraman/bidali zure datuak:
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalari Babesleak, beteak, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak. TOLOSÁ-HERRIA HEDABIDEAK S.M.-en fitxategi automatizatu berrira pasatuko direla, enpresek dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusitako zuen datuak, ezarritako eta kontratu egindako eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbidea honetara: TOLOSÁ-HERRIA HEDABIDEAK, S.M.- Araba etorbidea 5 behea, 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info

egin zaituz harpidedun!

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak: _____ •NA: _____

•Lanbidea: _____ •Jaiotzeguna: _____

•Helbidea: _____ •Herria: _____

•PK: _____ •Tel: _____

•Posta elektronikoa: _____

•Kontu zenbakia:

Sanpedroek txintxarriei pasa diete lekukoa

Festa giroa izan da nagusi eskualdeko herrietan: Asteasu, Urkiza, Leaburu, Amaroitz eta Zizurkilan

burun San Pedro jaiak ospatu dituzte aste honetan, eta azkenik igandean eman zieten amaiera festari.

Asteasu, pilotajaldia, sagardo dastatzea eta herri kirolak izan zituzten, festen azken egunetan. Urkizun, trikitalarriak, paquerriak, tortilla lehiaketa, toka, bolo txapelketa eta ume jolasak izan zituzten igandean. Leaburu, berriz, moza, txakolin dastatzea, zakillean paseoa, herri kirol erakutsak eta trikitalarriak izan zituzten. Goizean, Euskal Herri-

ko Toka Txapelketako finala jokatu zen. Larunbatean 20 jokalaririk hartu zuten, finalerako txartela. Eta, azkenean, Eduardo Alvarezek hartu zuen Euskal Herriko txapeliduna izatea. Taldekako saria ere banatu ziren.

Urkizu ez da festa ospatu dituen Tolosako auzo bakarria izan. Urtero bezala, uztailko lehen asteburuan, auzoko festa ospatu dituzte Amaroitzen. Ekitaldiz betetako eguna ospatu zuten, diana, moza, erromeria, eskolaren ere-

kuskota, karta txapelketa, dantzariak, edota afari merienda izan zituzten, besteak beste. Honela, ostrialdean hasitako festei amaiera on bat eman zieten.

Kuadrilen eguna

Zizurkilan herriko kuadril-ek alaitu zuten asteburuan herria; larunbatean, kuadrila eguna ospatu baitzuten.

Triki potoarekin eman zieten hasiera egunari. Ondoren, sagardo harrikotea egin zuten eta kuadrila guztiak Jose Arregi plazan

bazkaldu zuten. Bazkalostean, kuadrilen arteko jokoa egin zituzten: *aulki joko*, *arrazta jaurtzea*...

Azkenik, Kantuki Taldearekin dantzatzu eman zieten amaiera egunari. Ganaak honela, sanpedroak amaituta Alegiako karmenek dute orain lekukoa. Herriko festa ospatzen hurrengoak bertako txintxarriak izango baitira. Bistar-tean, ekitaldiz betetako asteburuan ostean atsedean hartzea tokatzen da.



Igandean, Leaburu pilotalekuan Euskal Herriko Toka Txapelketa jokatzeko bitartean, txakolin dastatzea egin zuten, pintxoak ere dastatu ahal izan ziren. M. UGARTEMENDIA



Amaroitz auzoan larunbatean bakallaoa aporriero erara prestatu zuten. Igandean, Amaroitzo dantza taldea eta Dantzari Trikiak San Blasetik kalejarian jaitzi ziren festa gunea. M. UGARTEMENDIA



Urkizun umeen basarian egin zuten, larunbatean; igandean, berriz, tortilla lehiaketa Urkizuko auzotar askok parte hartu zuten. M. UGARTEMENDIA



Zuzurkilgo kuadrilen egunean, hainbat joko egin zituzten. M. UGARTEMENDIA




Asteasu herri kirol jaldia izan zen, igandean. LARA GOMEZ



Asteasu, hainbat gaztek zezentxoan buttzadak jaso zituzten. M. UGARTEMENDIA

Abaltzisketa AUTODETERMINAZIOAREN ALDE, LARRAITZEN



Autodeterminazioa, gero eta argiago leloarekin ospatu zuten Nazioen Mundua ekimenak larunbaterako Larraitzen antolatu zuten jaldia. Ehunka lagunek Txindokiren magalean, autodeterminazio eskubidearen aldeko hainbat mezu osatu zituzten mosalde emaldia egin da. Mosalko Indukatu ondoren, jai giroan jarraitu zuten egun guztian pintxoekin, musikarekin, badjariarekin, bertsolariekin eta abar. M. UGARTEMENDIA

Berastegi



ARANTZAZU AZPIROZI OMENALDIA

Asteburu honetan Iratiko Touraren II. Euskal Herriko zirkuitista Itzulia egin da Zuberoako errepidetan zehar. Guztura 150 txirindularitik gora hartu zuten parte hartuaren edizio honetan. Larunbatean, 10:30ean eman zieten Irteera txirindulariel Irteera eremuan Arantzazu Azpirozi omenaldia, eta Mikel Pradera txirindulari ohiek ESAT-en omenaldia jaso zuten. M. UGARTEMENDIA

Ibarra



LANGOSTINOAK MOTORREN GAINEAN

Asteburu honetan motor zale ugari elkaru dira baiman. Moza, tamaina eta kolore askotako motortzak kusi ahal izan dira eskualdean festa hau dela eta. Jada IX. Langostino Moto Festa ospatu dute aurteangoan. Bieli bezala, jokoa, akrobaziak, zuzien desfilea, kontzertua eta abar izan zituzten. Eguraldia lagun izan dute asteburuan, eta honi etekina ateratzen salatu ziren. M. UGARTEMENDIA

Kirolak >

↓ Kirol emaitzak

TRIATLOIA

AUSTRIAKO IRON MAN

Emakumezkoak

38. Itsaso Leunda	10:11:32
Gizonezkoak	
108. Aitor Regillaga	9:14:57
137. Alberto Vaquero	9:19:51
344. Jon Artutxa	9:48:46
397. Edu Gonzalez	9:53:58
541. Asier Saez	10:08:51
1.208. Iñigo Esnaola	11:12:12
1.468. Alar Sevillano	11:38:03
1.469. Yon Gonzalez	11:38:03

GARAIAKO TRIATLOIA

1. Aimar Agirresarobe
2. Egoitz Zalakain

DEBAKO TRIATLOIA,

EUSKADIKO TXAPELKETA

9. Aitor Tejeria
42. Gorka Sarasola
121. Aritz Iglesias

AIZKORA

III. MAILAKO TXAPELKETA

Finalerdiak

1. Arkaitz Jauregi 08:48
2. Asier Pellejero 09:47

SEGA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Lehen finalerdia

1. Arkaitz Arteaga 1.106 kilo
2. Jon Kanflanka 1.079,5 kilo
3. Jon Intxaurre 924,5 kilo
4. Iban Pardo 774,5 kilo

Bigarren finalerdia

1. Juanjoxe Lizaso 1.174,5 kilo
2. Mikel Alkorta 1.119,5 kilo
3. Jokin Etxeberria 1.070 kilo
4. Gorka Larrañaga 676 kilo

ARRAUNA

EL CORREO BANDERA

1. Getaria-Tolosa 10:46:26
2. Bizkaia 10:55:42
3. San Juan 10:58:02
4. Hondarribia 11:25:32

Eskualdeko bederatzi triatloilariek bukatu dute Austriako Iron Man proba

Itsaso Leundak 38. amaitu zuen emakumezkoetan, baina Hawaiiirako sailkapena ez zuen lortu

Aitor Elduaian

Denek amaitu zuten. Bederatziak *finisher*. Austriako Iron Man proba (3'8km-180km-42'2km) oso marka onekin osatu zuten eskualdeko bederatzi triatletek igandean. Aitoru behar zaie: maila ikusgarria erakutsi zuten.

Itsaso Leundak 38. amaitu zuen emakumezkoen sailkapenean, eta bere adin taldean (25-29 urte) 7.a izan zen, 10:11:32-ko lana osatuz. Proba ondo amaitzea zen bere lehen helburua eta baita lortu ere; bigarren saria faltatu zitzaion, Hawaiiirako sailkapena lortzea, baina ez zen posible izan. Hurrengo baterako esperientzia aberasgarria bildu du, hori bai.

Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldeko mutilen artean aurreikuspen baikorrenak bete zituzten ia denek. Aitor Regillaga eta Alberto Vaquero izan ziren buruan, orotara 108. eta 137. sailkatuz 9:14:57-ko eta 9:19:51-ko denborekin; ia bederatzi orduko langa gaintzeko balentria lortu zuen Regillagak, baina korrika azken kilometroetan bete egin zen, eta Vaquero, bere aldetik, bikain erregulatatu zuen proba guztia puntatuo denboretan osatuz.

Bigarren multzo batean Ion Artutxa, Edu Gonzalez eta Asier Saez sartuko ditugu. Lehen biek



Bederatzi triatletek beren *finisher* elastiko eta dominekin, zaleen babesa eskertuz. HITZA

10 orduko langa gaintu zuten, Artutxak 9:48:46 igeriketa eta maratoi saio bikainak eginez, eta Eduk 9:53:58 bizikleta partzial ikusgarriarekin. Saez-ek 10:08:51 egin zuen; 11 orduko langa gaintzea zuen helburu, beraz atera kontuak...

Eta segidan hiru hasiberriak: Iñigo Esnaola (11:12:12), Alar Sevillano (11:38:03) eta Yon Gonzalez *Gonzi* (11:38:03). Hiruek izan zuten partzial zail bana, Esnaolak igeriketa, Alarrek maratonia eta Gonzik txirindularitza, baina kasta handiarekin egin zieten aurre kontraktasunei eta *finisher* titulua ondo baino hobeto irabazi zuten.

Orobat goi mailako partaidetza eta esperientzia geure ordezkariatzat. Denbora luzeko entrena-

mentu saioek izan dute bere ordaina. Mundu mailan sona handia izan zuen gainera atzokoak: gizonezkoetan Iron Man distantziako munduko errekor berria ezarri zuen Marino Vanhoenacker belgiarrak, 7:45:58 eginda. Eta emakumezkoetan Mary Beth Ellis estatu batuarrak 8:43:34 markarekin probako errekor berria ezarri zuen.

Bi tolosar, Garain onenak

Igandean ere, Durangaldean Garaiko triatloia jokatu zen, distantzia ertainekoa (2km-90km-21km), eta egungo bi tolosar triatleta onenetakoak izan ziren protagonista nagusi: Aimar Agirresarobe (AtSS) eta Egoitz Zalakain (AtSS). Proban goitik behera nagusitu ziren hasi eta buka. Ige-

riketan uretatik irteten lehen biak izan ziren, txirindularitza elkarrekin amaitu zuten lehen postuan, eta korrika Agirresarobek egin zuen partzialik onena. Podiumeko lehen bi koskak haiatzat, Agirresarobe irabazte eta Zalakain bigarren. Sari eta motibazio bultzada bikaina datozen erronkei begira.

Nafarroan ere izan zen distantzia horretako triatloi bat, Aritzalekukoa. Aitor Mendia izan zen han Mahala TTT-ko ordezkaria, proba dotorea burutuz. Bezperan, Debako triatloia jokatu zen, distantzia olimpiakoan (1'5km-37km-10'5km) Euskadiko Txapelketa. Aitor Tejeriak (Lagunak) 9. amaitu zuen proba, Gorka Sarasola (Mahala TTT) 42. sailkatu zen eta Aritz Iglesias (Mahala TTT) 121.

Asier Pellejero III. Mailako Euskadiko finalean izango da

Usurbilgo kanporaketan aizkolarri aresoarrak bigarren postua lortu zuen, Jauregiren atzetik, txartela eskuratuz

Erredakzioa Areso

Asier Pellejero aresoarrak lortu du III. Mailako Euskadiko Aizkolarri Txapelketaren finalerako txartela. Usurbileko kanporaketan bigarren egin zuen, Arkaitz Jauregiren atzetik. Jauregi eta Pellejeroekin batera Mikel Larrañaga

eta Jon Irazu izango dira ere finalean.

Usurbilgo kanporaketan hamar aizkolarri aritu ziren lanean, hiru txandatan banatuta. Aizkolarriek launa kanaerdiko ebaki dituzte. Lehen txandan, Jauregi, Llanos, Pellejero eta Gogorza aritu ziren lanean, eta, hain justu, txanda horretakoek egin zituzten bi denborarik onenak. Hastapenetik jarri zen probaren buruan Jauregi. Pellejero eta Jauregi iazko finalean aritu ziren. Beraz, ez da ustegabea izan bi aizkolarriak aurtengo finalerako txartelak eskuratzea.

Kellyam Quintana bigarren, Espainiako 17 urte azpikoan

56 kiloko mailan lortu zuen Quintanak azpitxapelketa; Gallego, Sasiain eta Arrate ere txapelketan izan ziren

Erredakzioa Villabona-Zizurkil

Kellyam Quintanak Espainiako 17 urte azpiko txapelketan bigarren postua lortu zuen 56 kiloko mailan. Berarekin batera Danena-Olaederra taldeko beste pultsulari batzuk parte hartu zuten Sevillan (Espainia) izan zen txapelketan. Horrela, 62 kiloko mailan Asier Gallego seigarrena izan zen; 69 kiloko mailan Adrian Sa-



Kellyam Quintana, Sevillako podioan. HITZA

saiain bosgarren izan zen; eta 77 kiloko mailan Joseba Arrate zazpigarren izan zen. Aipatzekoa izan zen Kellyamek egin zuen txapelketa. Bi akatsengatik ez da egungo Europako Txapelketan.

Bestalde, Gironan (Katalunia) jokatutako Galeuska Trofeoan, 17 urte azpiko mailan, Danena-Olaederra taldeko Adrian Sasiain izan zen txapeliduna eta Kellyam Quintana bigarren.

Lau segalari finalistak, eskualdekoak

Arkaitz Arteaga, Jon Kanflanka, Juanjoxe Lizaso eta Mikel Alkorta, Euskadiko Txapelketako finalera

I. Garcia

Zortzi segalari aritu ziren lehia Euskadiko Segala Txapelketako finalerdietan Aizarnan (Gipuzkoa), eta eskarmenturik handiena duten segalariak lortu dute uztailaren 10ean Oiartzungo Pikoketan (Gipuzkoa) jokatu den finalerako txartela. Lauak eskualdekoak dira: Arkaitz Arteaga baliarraindarra, Jon Kanflanka leitzarra, Juanjoxe Lizaso asteasuarra eta Mikel Alkorta asteasuarra.

Finalerdi bakoitzean lau segalari jardun zuten, eta ordu erdiko lana egin zuten. Segalariak ahalik eta belar kilo gehien ebakitzeko ahaleginu ziren, baina txukuntasuna ere aintzat hartzen zen. Hala, soilik Mikel Alkorta as-



Arkaitz Arteaga izan zen lehena bere txandan. HITZA

teasuarrak jaso zuen puntu bateko zigorra; ondorioz, 20 kilo kendu zitzaizkion azken belar kilo kopuruan.

Lehen finalerdian ondoko lau segalariak jardun zuten: Jon Kanflanka, Arkaitz Arteaga, Jon Intxaurbe eta Iban Pardo. Arkaitz

Arteagak ebaki zituen azkarren lau sailak hasiera-hasieratik aurrera hartuta, eta bosgarren sailari ere ekin zion. Bigarren Jon Kanflankak jardun zuen, eta ez oso urrun Arteagarengandik, gehienez jota, bi minutuko alde aterata zion Arteagak. Intxaurbe

aritzen hirugarren. Hiru sail pasatxo ebaki zituen Euskadiko Txapelketaren estreinaldian. Berak aitortu zuenez, ez zuen lortu saio osoan berak nahi bezain guttura jardutea; «lotuta» aritu omen zen. Iban Pardo aritu zen laugarren, eta zestoarrak ere estreinaldia egin zuen Euskadiko Txapelketan.

Bigarren finalerdian, berriz, beste lau segalari hauek lehiatu ziren: Jokin Etxeberria amasarra, Juanjoxe Lizaso, Mikel Alkorta eta Gorka Larrañaga. Juanjoxe Lizasok hartu zuen probaren burua hasieratik, eta berak ebaki zituen azkarren hiru sailak; laugarrenaren zati bat ere ebaki zuen. Mikel Alkorta eta Jokin Etxeberria aritu ziren bigarren txartelaren atzetik, baina Alkorta aritu zen saio osoan aurretik, eta hiru sail eta laugarrenaren maila pare bat ebaki zituen. Gorka Larrañagak ere estreinaldia izan zuen atzokoa Euskadikoan, eta txandako laugarrena izan zen.

Bi finalerdiak bertatik ikusteko 230 ikusle bildu ziren.

→ Laburrak

Tolosak lortu du txapela Altunaren aurka Elgetan

PILOTA ▶ Xabier Tolosa anoetarrak irabazi zion Jokin Altuna amezketarrari Elgetako Lau Terdiko Txapelketan, 22-13. Kadete mailako finala jokatu zuten bi pilotariak. Tolosa 9-12 galtzen joan zen, baina ezker paretatik sakatzen hasi zen eta orduan aprobetxatu ahal izan zuen bere indar handiagoa Altunaren aurka.

Irene Usabiagak hiru urre lortu ditu Espainiakoan

TOLOSA ▶ Tolosa CF taldeko Iren Usabiaga txirridulariak hiru urrezko domina lortu ditu Espainiako junior pistako txapelketan, asteburuan. Tafallako Belodromoan aritu ziren lehia txirridulariak eta Usabiagak jazarpen proban, scratchean eta puntuaketa lehenengo postua lortu zuen.

Jesus Garmendiak hiru garaipen lortu ditu

ORENDAIN ▶ Nazioarteko Hipika Lehiaketa jokatu zuten asteburuan, Loiolan Bertan, Jesus Garmendia orendaindarra ongi baino hobeto aritu da. Gipuzkoa Kirolak, Frigo eta Volkswagen sariak eskuratu ditu Garmendiak, hiru eguneko lehia.

Zeberio eta Ezkurak ezin, atzelarien aurka

ELDUAIN ▶ Zeberio II.a eta Ezkurra aurrelariak ezin izan zuten irabazi Urrutia I.a eta San Miguel atzelarien aurka. Oriamendi enpresaren urteurrenoko partida nagusia jokatu zuten eta atzelariak 40-25 irabazi zuten. Partidak ez zuten gorabehera handirik izan. Bi atzelariak hasieratik hartu zuten aurrea eta pixkanaka markagailuan tarte zabaltzen joan ziren. Urrutiak partida ona egin zuen aurreko koadroetan.

Martxan jarri da HITZA txapelketa

Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako pilotarien finalerdiak zehaztuta gelditu dira

I. Garcia

HITZA Pilota Txapelketako lehenengo kanporaketak jokatu dira benjamin, alebin, infantil eta kadeteetan. Benjaminetan finalerdiak Esteban-Lasak eta Iruretagoiena-Agirrek, eta Agirrezabala-Lezeak eta Zubeldia-Olanok

jokatuko dituzte. Alebinetan, Aranguren-Zinkunegi eta Oiarbide-Arandia, eta Zabala-Agirre eta Erasun-Tormo ariko dira finalerdietan. Lau partidak Albizturren izango dira, hilaren 8an, 19:00etan hasita.

Infantiletan Peña-Urdapilleta eta Barriola-Mendia, eta Bakalkua-Erauskina eta Santxez-Urizar ariko dira. Kadeteetan Garaio-Aburuza eta Mujika-Balardi, eta Urdapilleta-Iruretagoiena eta Galarraga-Alduntzin ariko dira. Lau partidak Tolosako Beotibar frontoian jokatu dira, hilaren 9an, 10:00etan hasita.

Getaria-Tolosak eraman du Bilbokoa

Arraunlariak bere indar fisikoak baliatu zuten El Correo bandera eskuratzeko, Bizkaia eta San Juanen aurretik

I. Garcia

Getaria-Tolosan taldeak El Correo bandera eskuratu zuen Bilbon, Eusko Tren ligan. Hiru traineru izan zituzten aurkari banderaren lehia: Bizkaia, San Juan eta Hondarribia. Lehenengo biak lehiatu ziren Getaria-Tolosa-

koak, Hondarribia oso atzean gelditu baitzen.

Bilboko itsasadarrean aritu ziren lehia arraunlariak eta indarrak zerikusi handia izan zuen azken emaitzean. Getaria-Tolosakoak ziren eta proban aurrera joan ahala erakutsi zuten horren zergatia. Erritmo jarraia eraman zuten eta Bizkaikoak eta San Juanekoak eusten saiatu baziren ere, pixkanaka tarte ateratzen joan ziren getaria-tolosarrak. Azkenean, bederatiz segungeta ateratzen zizkien Bizkaikoei eta hamaika segundotako pasatxo San Juaneko taldekideei.

Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



KM BAKAR BAT EGIN GABE BIDAIATUZ

Ikasturtea amaituta, suhiltzaileen aparkalekuan dagoen Nairobitarra autobusaren inguruan helduek zein umeek udako hilabeteetan egingo dutenaz hitz egiteko aukera izan berri dute. Iluntzean, Idoia Sanchezen kontakizunak entzun eta lorategian afaldu ostean, autobusean bertan gaua pasatzeko aukera ere izan zuten guztiek. Nairobitarrak munduaren azaletik ibilbide luzeak eginak baditu

ere, oraingoan autobusak kilometro bat bera egin gabe hasi du bidai. Nairobitarrak bidaiak eta bertan sortzen diren bizipenak, jakintzak eta abar oinarri hartuta, helduen zein umeen lankidetzak eta autonomia bultzatzea du helburu nagusizat, autobusean bertan datozen hilabeteetan burutuko diren, eta iragarriko dituzten, jardueren bidez. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune
Euskal Herria kalea, 46.
943 67 32 74.
- **Betelu.** Carrillo, A.
Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M.
San Martin, 5. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** San Bartolome jailetako kuadrila eguna antolatzeko bilera egingo dute gaur, 19:30ean udaletxeko batzar aretoan.

ERAKUSKETAK

- **Ibarra.** Ikasturtean zehar egon diren tailerretan egindako lanak ikusi daitezke Kultur Etxean uztailearen 8a bitarte.
- **Larraul.** Pisuak eta balantzak Ekomuseoan, iraila arte.

Agurak



Zorionak!

Aitor Lopetegi Arrue (Tolosa). Zorionak atzoko partez eta muxu asko-asko etxeko guztien partetik.



Kontxo! 47 urte, ez du ba ematen! Zorionak eta segi gazte! Bi muxu handi, Iraitz eta Idoiaren partetik!

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**



www.funerariavascongada.com

Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI eta SULABEA

24 H..

943 694 873